

# Hezkuntza afektibo-sexualaren garrantzia Lehen Hezkuntzan

**Autor:** Erdoiza Garcia, Rebeka (Maestra. Especialidad en Educación Primaria y PT, Maestra de Educación Primaria).

**Público:** Lehen Hezkuntza. **Materia:** Naturaren Zientziak, Tutoretza eta Balio Sozial eta Zibikoak. **Idioma:** Euskera.

**Título:** Hezkuntza afektibo-sexualaren garrantzia Lehen Hezkuntzan.

## Resumen

Artikulu honetan hezkuntza afektibo-sexualaren garrantzia nabarmendu nahi da. Eskola, familiaren atzetik, suspertzaile hezitzaile garrantzitsuenetakoa da. Eskolak eta heziketak ikasleei bizitza eraikitzen laguntzen die, umeak sozializatzen eta bizitzarako prestatzen ditu. Umeen heziketa integralean afektibitateak eta sexu-heziketak garrantzi handia dute. Ezagutza biologikotik haratago, genero identitatearen eraketa edo gure kulturaren esparruan harreman afektiboen gisako garrantzi handiko prozesuak azaltzen ditu. Gizon-emakumeak, berdintasunean eta diskriminaziorik gabe elkarrekin bizi gaitzkeen gizarte bat eraikitzeko asmoa baldin badugu, behar-beharrezkoa da ikasleria kalitatezko heziketa afektibo-sexualaz hornitzea. Hezkuntza ezak, gerta daitezkeen disfuncio sexualetan eragin zuzena izango du. Hori guztiaz gain, demokratikoago den gizarte bat eraikitzen laguntzeko gizarte-oinarriak eraldatzea saihestuko du.

**Palabras clave:** Hezkuntza, afektibo-sexuala, Lehen Hezkuntza.

**Title:** Importance of sexual-affective education in Primary School.

## Abstract

In the following article it is intended to outline the importance of sexual-affective education. The school plays, after the family, one of the most important roles. Education and school help students in their process of evolution, socializing and preparing them for life outside. Affection and sexual education are of big importance in a comprehensive education of the pupils. Further than just biological knowledge, it helps create a sexual identity and explains the processes of affective interaction within our cultural context.

**Keywords:** Education, sexual-affective, Primary School.

Recibido 2018-12-16; Aceptado 2018-12-24; Publicado 2019-01-25; Código PD: 103066

## 1. SARRERA

Fisiologikoki eta psikologikoki gizaki guztiak sexudunak gara. Gure gorputza komunikazio, maitasun, plazer eta samurtasun iturri da. Giza jokaeran kulturak eta balioak eragin zuzena dute. Balioak, gizarte eta kultura esparruan ikasten eta garatzen dira, familiak eta eskolak rol nagusi hau betetzen dute. Jokabide sexuala prozesu guzti honen partaidea da, horregatik umearen hezkuntza integralean esku-hartzea izan behar du, ikaskuntza tresna aproposa izanik.

## 2. SEXU-HEZIKETA OINARRIZKO HEZKUNTZAN

Umeak eta gazteak denbora tarte handia pasatzen dute eskolan. Gogoan izan behar dugu, eskola dela, bigarren eragile hezitzaile garrantzitsuena. Hori dela eta, gizarteak eskolari egundoko rola aitortzen dio umeen sozializazioan eta bizitzarako prestaketari dagokienean.

Argi izan behar dugu, sexu-heziketa Oinarrizko Hezkuntzaren (Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza) etapa guztietan landu behar dela. Are gehiago, Haur Hezkuntzan hasi, Lehen Hezkuntzan jarraitu eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan jorratu behar den gai da.

Sexu-heziketaren bitartez, neskek eta mutilak bere burua ezagutzea eta onartzea planteatzen da. Gogoan izan behar dugu, ikastetxeetan sexu-heziketa formalik ez badago, neskek eta mutilak beste iturri ez-formaletara joko dutela. Horrek izan ditzakeen kalte ordainak larriak izan daitezke; iturri ez-formal horiek kontzeptu kontraesankorrak helarazi ditzakete, umeak nahasiz.

- 2 eta 6 urte tartean, umeek irudi afektiboen eta gorputzeko sentsazioen harremanak ikertzen dituzte. Etapa honetan, identitate sexualaren hasiera ematen da eta neska -mutilek irudikatzeko ereduak bilatzen eta hartzen dituzte. Neska nahiz mutil direla konturatzen hasten dira, eta sexu desberdinen inguruko jakingura izaten dute.
- 6 eta 11 urte tartean, betiko neska edo mutil izango direla ohartzen dira. Nagusien gizarte-hezkuntza sexuala eta eredu sexuala barneratzen dituzte, eta bi sexuek rol berberak bete ditzaketela hautematen dute.
- 12 eta 16 urte tartean, nerabezaro garaia da. Hormona broteak pairatu eta gorputzean aldaketak bizi dituzte; nesketan hilerokoa jaitea, mutiletan lehenengo isurketak, bibotea, mokorrak handitzea, gorputzean ilea eta pinportak irtetea... eta aldi berean, gogoeta egiteko modu bat garatuko dute. Nortasun sexuala eraikitzean, lagunak hartuko dituzte erreferentzia bezala eta gurasoak bigarren eskalan geratuko dira.

Arestian aipatu bezala, eskoletan sexu-heziketa egokia lantzea derrigorrezkoa da. Sexu-heziketako programa aurrera eramateko tutoreak eta psikologo espezializatuak (sexologoa) nahitaezkoak dira. Bien arteko elkarlana funtsezkoa izango da. Irakasleekin kurtsoan barna landuko da eta sexologoarekin koordinatutako denbora tarte jakin batean.

Ikasleei sexualitatearen kontzeptu zabala ezagutarazi eta transmititu nahi da, emakume edo gizon izateari lotuta dagoen prozesua baita. Sexualitatea praktika erotikoa edo genitalak edukitzea baino gehiago dela erakutsi nahi da.

Berebizikoa da hezkuntzan parte-hartzen duten eragile guztien esku hartzea: ikasleak, irakasleak eta gurasoak.

### 3. SEXU-HEZIKETA LEHEN HEZKUNTZAKO 5. ETA 6. MAILAN

Gai hau zeinen garrantzitsua den kontuan izanda, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetan lantzen den sexu-heziketaren programaren garapena azalduko dugu.

Ikasturte guztian zehar, tutoreek geletan gaia jorratuko dute. Eta horrezaz gain, sexologo batekin adostutako talde-lanean ikasleei heziketa bereziagoa eskainiko zaie. Irakasleriak eta sexologoak koordinazio saioak izango dituzte, eduki eta ekintza desberdinak ezagutza esparru ezberdinetara eramateko.

Programa hasi aurretik, hilabete lehenago, ikasleek izengabeko orrietan kezka eta zalantzak idazten dituzte. Guztiak sexologoari igortzen zaizkio. Programaren edukiak eta helburuak taxutzeko orduan, sexologoak ikasleen ardurak eta ezbaiak kontutan hartzen ditu.

Sexu-heziketaren programa LH 5. mailan eta 6. mailan:

#### a) Programaren aurkezpena

- ◆ Talde bakoitzarekin bost astetan zehar ordu beteko saioa egingo da.
- ◆ Helburu nagusia sexualitatea umeen bizitzan integratzea da. Pertsona bakoitzak, bere bizitzeko, antzemateko eta aditzera emateko erak begirunezkoak izaten laguntzeko.
- ◆ Ikasleek sexualitatea emakume eta gizon egitearen prozesu bezala ulertu behar dute.
- ◆ Gazteei bizitzako momentu horretan heltzen zaizkien mezuak aztertu, baliogabetu eta zehaztuko dira.
- ◆ Ikasleei beraien sexualitatea eraikitzeke baliabideak eskaintzen zaizkie, une horretan bizi duten garapenen psikologikora egokituta. Planteatutako egitaraua gazteen jakingura eta gogoetara, eskolaren egoerara, uneko errealitatera, eta gure inguruan egunean gertatzen diren gizarte eta kultura aldakuntzei egokituta dago.

#### b) Garapena

- ◆ Saio guztietan kontutan hartuko dira: interesak, errespetua, harremanak, aniztasuna eta auto-estimua.
- ◆ Ikasleek aditzera ematen dituzten interesak eta ardurak kontutan hartzen dira.
- ◆ Saioetan planteatutako ekintza eta izaera guztiak, auto-estimua, asertibitatea eta beraien arteko begirunezko tratuak garatzeko helburuarekin egiten dira.
- ◆ Talde ezberdinak eta anitzak parte-hartzen dutenez, bakoitzarekin egingo den esku-hartzea espezifiko, zehatza eta taldeari moldatua da.

- ♦ Horrez gainera, egitasmoaren bukaeran, sexologoaren gidaritzapean gurasoei espresuki zuzendutako informazio batzar bat egingo da. Sexu programa ezagutzera ematen da eta, geletan egindako esku-hartzea eta gurasoek izan ditzaketen duda-mudak, interesak, kezak, beldurrak... partekatzeo aukera eskaintzen da.

#### c) Helburuak

- ♦ Giza Izate Sexuala ezagutu. Gizabanakoaren alderdi biologikoak, afektiboak, kognitiboak eta soziokulturalak.
- ♦ Gorputzaren aniztasuna ezagutu eta ontzat eman.
- ♦ Emakume zein gizon izatea onartu. Pertsona bakoitza askatasun osoz agertzeko eskubidea dauka, eta norberak nahi duen eran eratuko du emakumetasuna zein gizontasuna.
- ♦ Sexualitatearen pentsamendu afektiboa zein desiragarria eraiki. Guztiok desberdinak gara, hortaz, emakume eta gizon bakoitzak atsegin eta desio ezberdinak izango ditu. Norberaren desioak adierazten eta besteenak errespetatzen ikasi behar da.
- ♦ Sexualitatearen inguruko hausnarketa eragin.
- ♦ Norberak bere osasunaren erantzukizuna, kontrola eta autonomia sustatu.

#### d) Edukiak

##### LH 5. maila

- Sexualitatea zer da.
- Gorputz sexuduna: anatomia eta fisiologia.
- Gorputz itxura eta higiene ohitura osasungarriak.
- Sexu nortasuna. Neska izan, mutil izan.
- Familia, adiskidantza (harremanak, sentimenduak...).
- Maitasuna, adiskidetasuna azaltzeko era desberdinak (Baietz eta ezetz esateko aukera eta eskubidea; sexu gehiegikerien aurrean zer egin, eman beharreko urratsak, komunikatzeko egokitasuna etab.).
- Ugalketa prozesua: ernalketa, haurdunaldia eta erditzea.

##### LH 6. maila

- Aldaketen eta nerabezaroaren inguruko iritzi, uste eta sineskerak.
- Aldaketa bio-fisiologikoak (gorputzaren irudia, menarkia eta ondorengo hilekoak, gaueko isurketak, isurketak etab.).
- Aldaketa psikologikoak (auto-estimua, sentimenduak, errespetua etab.).
- Gizarte-aldaketak (familia harremanak, pareko kideen taldea etab.).
- Familia aniztasuna.
- Gizartean pertsonen emandako sexu rola.
- Desioaren joera.
- Praktika erotikoak (musuak ematea, kili-kiliak egitea, gauza politak esatea, besarkatzea, laztanak egitea, masturbazioa, koitoa etab.).

#### e) Metodologia

Aurretik programatutako saioak dira, eredu irekiak eta malguak. Erabilitako metodologia, jarduerak, eta talde dinamikak, beti ikastaldearen ezaugarrietara egokitzen dira. Ikasleekin jolas-jardueren bitartez modu dinamikoan lan egiten da, hezigarriak izanik beti ere.

Talde-dinamika guztiak iritzi desberdinen gogoeta eta hartu-emanetara zuzentzen dira. Elkarrekintzak talde handian, talde txikian eta bakarka egiten dira, maila indibidualean eta gizataldean gogoeta errazteko.

Irakaskuntza esanguratsuaren bitartez, ezagutzaren eraikuntza bultzatu nahi da. Ikasleen aurrezagutzak, ideia eta kontzeptu berriekin erlazionatzen dira. Ezagutza berriak eraten dira eta hauek egoera berrietara transferitzen dira.

Hezitzaileen eta ikastaldearen arteko harremana gertukoa izatea, konfiantzazko giroa sortzen laguntzen du. Horrek, taldeetan argudiatzeko, ikertzeko eta pentsatzeko aukera ematen du.

#### f) Bitartekoak

- Ikasleen interesak eta aurrezagutzak.
- Ordenagailu txikiak.
- Arbela digitala.
- Internet.
- Baliabide suntsikorrak: orriak, kartoi meheak, arkatzak, margoak...

#### g) Ebaluazioa

Ikasleekin esku-hartzea bukatzean inkesta bat pasatuko zaie. Ebaluazio kuantitatiboa egingo da. Galdera sortan lotutako emaitzekin azterketa sakona burutuko da.

### 4. BALORAZIOA

Laburbilduz, eskolari dagokionean, sexu-heziketa txikitatik garatzea funtsezkoa da. Heziketa Afektiboa eta Sexuala umeen eraketa integralerako oso garrantzitsua da. Ezagutza sexualak pertsonak bezala hazten laguntzen digu. Hala ere, ez dugu aiantzi behar sexualitatea bizitza osoan zehar landu behar dela. Lan zail honetan, eragile hezitzaile guztiok inplikatur gaude. Sexu-heziketako programak ikastetxeetan jarraipena, finkotasuna eta seriotasuna izan behar dute.

#### **Bibliografía**

- SANCHO ESNAOLA, N. (2007). *Kilimak! Sexuen hezkuntza-Lehen zikloa*. Donostia: Erein argitaletxea.
- SANCHO ESNAOLA, N. (2006). *Kilimak! Sexuen hezkuntza-Bigarren zikloa. Hezitzaileentzako gida*. Donostia: Erein argitaletxea.
- SANCHO ESNAOLA, N. (2006). *Kilimak! Sexuen hezkuntza-Bigarren zikloa*. Donostia: Erein argitaletxea.
- SANCHO ESNAOLA, N. (2012). *Kilimak! Sexuen hezkuntza-Hirugarren zikloa*. Donostia: Erein argitaletxea.
- [http://www.ikasbidea.hezkuntza.net/c/document\\_library/get\\_file?uuid=1926d7b7-9812-4ccb-bf83-56bee20f1e5c&groupId=18804](http://www.ikasbidea.hezkuntza.net/c/document_library/get_file?uuid=1926d7b7-9812-4ccb-bf83-56bee20f1e5c&groupId=18804)
- <https://www.ttiklik.com/eu/blog/2012/02/08/sentsazioetan-oinarritzen-den-sexualitatea/>